



SORALUZЕKO
UDALA



Lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

“HERRILAN”, herriguneak eta kaleak mantentzeko lanbide-eremuko enplegu-formakuntza programaren baitan kontratatzeko lan-deialdia

Soraluzeko Udalak diziplina anitzeko langileak sei hilabetez %75eko lanaldian kontratatzeko lan-deialdia egingo du Lanbidek finantzatutako “HERRILAN” programari esker. Lanbideren Elgoibarko bulegoan eta Lanbideko web orrian eman daiteke izena abenduaren 17tik urtarrilaren 17ra arte.

Soraluzeko Udalak kontratazio multzo bat egingo du datozen hilabeteetan Lanbidek diruz lagundutako proiektuaren baitan: *Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak* brigadako peoien kontrataziorako.

“HERRILAN” programaren bitartez, Udalak zortzi peoi kontratatuko ditu sei hilabetez %75eko lanaldian, talde-formakuntzarekin eta lan-orientazioko ekintza pertsonalizatuekin. Aurreikusten da otsaileko bigarren hamabostaldian hasiko lirakekeela lanean langile berriak.

Lan-deialdian izena emateko baldintza hauek bete beharko dira:

- Soraluzen erroldaturik egotea bai hautagaitza enplegu-eskaintzara bidaltzen den momentuan bai kontratua hasteko egunaren aurreko egunean.
- Lanbiden langabe bezala eta lan-eskatzaile gisa alta emanda egotea, bai hautagaitza enplegu-eskaintzara bidaltzen den momentuan bai kontratua hasteko egunaren aurreko egunean.
- Zaurgarritasun-egoeran edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan egotea, hau da:
 - DSBEa eta/edo BGE jasotzen duten titularrak eta onuradunak.
 - Luzaroko langabetuak: luzaroko langabetutzat joko dira hautagaitza bidali aurreko egunean langabezian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda eta enplegu-eskatzaile gisa alta emanda daudenak, baldin eta hautagaitza igorri aurreko 540 egunetan gutxienez 360 egunez egon badira alta emanda.
 - Kualifikazio baxuko langabeak: DBHko graduatu titulua edo baliokidea, edo horren azpiko maila akademikoa izatea.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, laguntza espezifikoak jasotzen dituztenak edo lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak —harrera-baliabideetatik datozelako edo bestelako egoeraren batean daudelako—, egoera berezi hori egiaztagiri bidez egiaztatuta dutenak eta enplegu-eskaintzan izaera berezi horren aipamena dutenak.
 - %33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortua dutenak.

- Gizarte-bazterketan dauden edo egoteko arriskuan daudenak, Gizarte Zerbitzuek egiaztatuak.
 - Zaurgarritasun-egoeran dauden beste pertsona batzuk, enplegu-politiken arabera lehentasunezko arretako kolektibotzat hartzen direnak.
- 2023-2024ko deialdian diruz lagundutako proiekturen batean (*Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Lehentasunezko Arretako Kolektiboak*) aritzeko kontratatua ez izatea, salbu eta behar adina parte-hartzaile ez egoteak proiektua abian jartzea eragozten badu.
- Hiri lanetan (kanpoan, kalean) aritzeko osasun ezintasunik edo bestelako eragozpenik ez edukitzea.